

Euskal AEko industria-jarduerak % 2,4 egin du behera 2023ko maiatzean


Urteko lehen bost hilekoen balantzearen itxieran industria-produkzioaren indizearen hazkuntza % 0,6koa izan da

Euskal AEko industria-produkzioa 2023ko maiatzean aurreko urteko hil berekoa baino % 2,4 txikiagoa izan da, lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, Eustatek prestatutako datuen arabera. 2023ko lehen bost hiletan metatutako produkzioa, berriz, aurreko urteko aldi berekoa baino % 0,6 handiagoa izan da.

2023ko apirilean, aurreko hilarekin alderatuta, Euskal AEko industria-jarduerak % 0,4 egin du behera azken hilabete honetan, urtaro-ondorio egokiak zuzenduta.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Ondasunen helmuga ekonomikoaren arabera, **Energiak** % 10,9 egin du behera, urte arteko tartean, 2023ko maiatzean. Sektore horretan, energia elektrikoaren produkzioa eta hornikuntza eta petrolio-fintzea sartzen dira.

Era berean, **Tarteko ondasunetako** jarduerak, besteak beste, metalurgiak eta produktu metalikoen fabrikazioak, industria kimikoak eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioak, urte arteko % 2,4ko jaitsiera izan dute produkzioan.

Ekipo-ondasunen produkzioak % 0,5eko jaitsiera izan du, bestalde. Haien artean honako hauek daude: motordun ibilgailuen fabrikazioa; lokomotorren eta trenbide-materialaren eraikuntza, eta eraikuntza aeronautikoa edo ontzigitza.

Kontsumo-ondasunek, berriz, urte arteko portaera positiboa izan dute 2023ko maiatzean; produkzioak % 0,6ko hazkuntza izan du sektorean. Hazkuntza hori *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* portaeraren ondorio izan da, % 6,7 egin baitute gora produkzioan; haietan sartzen dira elikagaien prozesatua eta kontserbazioa; garbitasunerako eta higienarako produktuen fabrikazioa; farmaziako produktuak, eta arropen jantzigitza. *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* produkzioak % 21,6 egin du behera. Haietan sartzen da, besteak beste, altzari eta etxeko tresnen fabrikazioa.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Maiatza 2023

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
INDIZE OROKORRA			
Euskal AE	-2.4	0.6	-0.4
Araba/Álava	-5.5	2.0	-2.3
Bizkaia	0.0	0.6	0.1
Gipuzkoa	-2.7	-0.2	0.2
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	0.6	2.2	-0.3
Kontsumoondasun iraunkorrak	-21.6	-6.5	-7.9
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	6.7	4.4	1.4
Ekipo-ondasunak	-0.5	3.0	1.3
Bitarteko ondasunak	-2.4	1.2	-0.1
Energia	-10.9	-9.0	-3.0

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtariletik behatutako azken hilera arte metatutako aldiaren (Am), aurreko urtean pila-tutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hila-ren (m-1) aldean

Data 2023ko Uztailaren 3a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila bereiziago batean, Euskal AEko industrian pisu gehien duten sektoreen artean, 2023ko maiatzean urte arteko hazkuntza izan duten bakarrak honako hauek izan dira: *Elikagaigintza, edariak eta tabakoa* (% 6,4) eta *Makineria eta ekipoa* (% 2,5). Urte arteko tartean produkzioaren jaitsiera handiena izan duten sektoreak honako hauek izan dira: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 13,3 egin dute behera), *Zura, papera eta arte grafikoak* (% 10,0 egin dute behera), *Material eta ekipo elektrikoa* (% 5,7 behera) eta, azkenik, *Metalurgia eta produktu metalikoak* (%4,2 behera).

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Maiatza 2023

	m / m-12
Elikadura ind., edariak, tabakoa	6,4
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-10,0
Kautxua eta plastikoak	-0,4
Metalurgia eta produktu metalikoak	-4,2
Materiaia eta tresna elektrikoak	-5,7
Makineria eta tresneria	2,5
Garraio-materiaia	-1,0
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-13,3

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aeko Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2023ko Uztailaren 3a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Industria-produkzioaren indizeak urte artean izan duen bilakaera 2023ko maiatzean negatiboa izan da Araban; produkzioak % 5,5eko jaitsiera izan du. Gipuzkoan jaitsiera % 2,7koa izan da. Bizkaian, berriz, produkzioa berdina mantendu da, aurreko urteko maiatzarekin alderatuta.

2023KO MAIATZEKO BALANTZE METATUA

Urteko lehen bost hiletako metatuan, industria-produkzioaren indizeak % 0,6ko hazkuntza izan du, *Ekipo-ondasunen* eta *Kontsumo-ondasunen* ondorioz (% 3,0 eta % 2,2, hurrenez hurren). *Tarteko ondasunek*, era berean, bilakaera positiboa metatu dute, eta % 1,2 hazkuntza izan dute, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta; *Energian*, berriz, urteko lehen bost hiletan metatutako produkzioa % 9,0 jaitsi da.

Lurralde historikoen arabera, 2023ko lehen bost hiletako metatua balantze positiboarekin itxi da: Araban, % 2,0 eta Bizkaian, % 0,6; Gipuzkoan, berriz, % 0,2ko jaitsiera izan da.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazio-bilketan elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hil honetako indizea laginaren % **91,23**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62